

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO XXIX. LITERATUR LEHIAKETA. 2019.URTEA

Poesia eta  
Narrazio laburra



Ayuntamiento de  
**Pamplona**

**Iruñeko**  
Udala

## IRUÑEKO GAZTEENDAKO XXIX. LITERATUR LEHIAKETA. 2019.URTEA

Poesia eta Narrazio laburra

### 1. PARTE-HARTZAILEAK

Bizitokia edo ikastetxea gaur egun Iruñean duten gazteek hartzen ahal dute parte. Bi kategorია daude, adinaren arabera: 14 eta 16 urte bitartekoak (14 urte beteta eta 17 urte baino gutxiago izan beharko dute 2019ko apirilaren 30ean), eta 17 eta 18 urtekoak (17 urte beteta eta 19 urte baino gutxiago izan beharko dute 2019ko apirilaren 30ean)..

### 2. MODALITATEAK

Poesia (14 bertso gutxienez, eta 40 gehienez) eta narrazio laburra (2 orri gutxienez, eta 5 gehienez, ordenagailuan idatziak, alde bakar batetik eta tarte bikoitzaz). Lan bakar bat aurkezten ahalko da modalitate eta hizkuntza bakoitzeko (gaztelaniaz edo euskaraz). Lan bera ezin izanen da itzulita aurkeztu bi hizkuntzetan. Testuek gai librekoak izan behar dute, jatorrizkoak eta aurrez argitaragabeak (paperean edo bitarteko digitalean).

### 3. LANAK NON AURKEZTU

Iruñeko Gaztediaren Etxean (Zangoza k., 30), 2019ko apirilaren 30eko 14:00ak baino lehenago.

### 4. NOLA AURKEZTU

Lan bakoitzeko 5 kopia aurkeztuko dira gutun-azal itxi baten barruan, izenorde batez sinaturik eta kopia bakoitzean lehiakidearen adina adierazita. Gutun-azalaren kanpoko aldean, honako testu hau idatzi behar da:

**IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR  
LEHIAKETA. 2019. URTEA**

**HIZKUNTZA:**

**MODALITATEA:**

**LANAREN IZENBURUA:**

**EGILEAREN SEUDONIMOA:**

**EGILEAREN ADINA 2019ko APIRILAREN  
30ean:**

Gutun-azal horren barnean beste gutun-azal bat sartuko da, itxita; horren kanpo aldean egilearen izenordea idatziko da, eta barne aldean orri bat sartuko da, egilearen honako datu pertsonal hauek adierazita: izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta ikastetxea.

### 5. SARIAK

Honako sari hauek emanen dira, modalitate (poesia eta narrazio laburra), adin-tarte eta hizkuntza bakoitzeko:

Lehen saria: 500 euro.

Bigarren saria: 250 euro.

Hirugarren saria: 150 euro.

Accesitak: 100 euroko bi sari.



### OHARRA

LLehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar hala hori arautzen duten Oinarriak nola Iruñeko Udalak sor daitezkeen interpretazio-arazoei buruz hartzen dituen erabakiak arras onartzea. Testu hau Iruñeko Gazteendako XXIX. Literatur Lehiaketako oinarrien laburpena da eta ez du balio juridikorik. Balio juridikoa duen testua kontsultatzeko Nafarroako Aldizkari Ofizialera jo beharra dago. [www.pamplonajoven.es/literaturlehiaketa](http://www.pamplonajoven.es/literaturlehiaketa)